


Merkatu segmentazioa

Gure bezeroak, batez ere, herri txikietako biztanleak izango dira, baina bi motatakoak izan daitezke:

Alde batetik, herri handiagoetara edo hirietara jaisteko gailurik ez dutenak, eta bestalde, automobila izan arren, kutsatu nahi ez dutenak.

Hauen beharrak ikusita, erosketak egiteko hirietara joan beharra dute, gainera horietako asko adineko pertsonak dira, eta hauei errazteko, eta denbora eta automobilen erabilera gutxitzeko, zerbitzu hau eskaini nahi diegu.



Denok dakigunez, zenbait pertsonek automobilen erabilera mugatua dute beraien adina dela tarteko, eta besteekiko dependentzia ez sortzeko, zerbitzu egokia dela uste dugu.

Bestalde, automobilen kutsadura gutxitzeko ideia paregabea dela uste dugu, ideia honekin automobilen erabilera gutxitu nahiko genuke. Gainera, pertsona askok automobilarekin hartzen dituzten arriskuak ekiditen lagun dezakegu.

